

ALDI BATERAKO ENPLEGUA
EGONKORTZEKO HAUTAKETA
PROZESUAK, ABENDUAREN 28KO 20/2021
LEGEAREN 2.1 ARTIKULUAREN
ONDORIOZKOAK (OPOSIZIO-LEHIAKETA)
PROZESUA: ADMINISTRARIA

A ZATIA

- 1) **Konstituzioan jasotako eskubideak Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren arabera interpretatu behar dira. Hitzarmen horretan jasotako eskubide bat urratu dela uste badu, edozein pertsona fisikok jar al dezake demanda bat Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian (GEEA)?:**
 - a) Bai, pertsona fisikoek zuzenean jo dezakete GEEAra, aurretik bide judizial arruntera jo beharrik gabe.
 - b) Bai, edozein pertsona fisikok jo dezake GEEAra, betiere jurisdikzio-bide arrunta agortu ondoren.
 - c) Bai, edozein pertsona fisikok jo dezake GEEAra, betiere barruko bide guztiak agortu ondoren, barne dela Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsoa aurkeztea, hala badagokio.
 - d) Ez, pertsona fisikoek ezin dezakete zuzenean jo GEEAra.

- 2) **Autonomia-estatutuei buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:**
 - a) Estatutuak autonomia-erkidego bakoitzaren oinarrizko erakunde-araua izango dira.
 - b) Estatutuek erakunde autonomo propioen izena, antolaketa eta egoitza jaso behar dituzte.
 - c) Estatuak bere antolamendu juridikoaren osagai gisa aitortu eta babestuko ditu estatutuak.
 - d) Estatutuak eraldatzeko, Konstituzioan ezarritako prozedura bete beharko da, eta nahitaezko gertatuko da Gorte Nagusiek lege organiko bidez eraldaketa onestea.

- 3) **Toki-ogasunen arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera:**
 - a) Toki-ogasunek ez dute zerga- eta finantza-ahalmenik.
 - b) Toki-ogasunek behar beste baliabide izan behar dute legediak toki-korporazioei esleitzen dizkien zereginak burutzeko.
 - c) Toki-ogasunak tributu propioez baino ez dira hornituko.
 - d) Toki-ogasunek Estatuaren tributuetan parte hartu ahal izango dute, baina ez autonomia erkidegoetako tributuetan.

- 4) **Zein izan zen Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia lortzeko erabili zuen konstituzio-bidea?:**
 - a) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria.
 - b) Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorra.
 - c) 1978ko urtarrilaren 4ko Lege Dekretua, aurreautonomia ezarri zuena.
 - d) Konstituzioaren 143. artikulua.

5) Autonomia Estatutuaren erreforma dela eta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:

- a) Estatutuak erreforma-prozedura orokor bat eta kasu zehatzetarako hiru prozedura espezifiko ezartzen ditu.
- b) Estatutuak berariazko erreforma-prozedura bat jasotzen du, Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko hipotesia gauzatzen den kasurako. Aukera hori jasota dago Konstituzioaren Laugarren Xedapen Iragankorrean eta Estatutuaren 2. artikuluan.
- c) Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak onartu behar dute erreforma-proposamena, eta, ondoren, Gorte Nagusietara bidali, onar dezaten.
- d) Erreforma-proposamena, behin Eusko Legebiltzarrean onartuta, Gorte Nagusiei helarazi behar zaie, lege organiko bidez onar dezaten, eta, azkenik, erreferendum bidez onartu beharko da.

6) Noiz gertatzen da diskriminazio anizkoitza edo interseksionala?:

- a) Bai emakumeak eta bai gizonak diskriminazio-egoeran daudenean.
- b) Bi diskriminazio-faktorek edo gehiagok aldi berean elkarreaginean dihardutenean, diskriminazio-modu espezifiko bat sortuz.
- c) Diskriminazioa batez ere emakumeek diharduten lanbideetan gertatzen denean.
- d) Botere publikoek ekintza positiboak aplikatzen dituztenean.

7) Genero-ikuspegia txertatzeak zer EZ du esan nahi?:

- a) Gure gizartean gizonen eta emakumeen abiapuntuetan, aukeretan eta posibilitateetan dauden desberdintasunak benetan eta zehatz-mehatz ezagutu behar direnik.
- b) Bi sexuen arteko desberdintasun biologikoetan oinarrituta justifikatu nahi den emakumeenganako diskriminazioa, desberdintasuna eta bazterketa identifikatu, zalantzan jarri eta balioestea ahalbidetzen duen metodologia behar denik.
- c) Desberdintasunaren faktoreetan eragiteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraikitzen aurrera egin ahal izateko behar diren aldaketa-baldintzak sortzeko abiarazi beharreko ekintzak behar direnik.
- d) Sexuak identikoak direnik (hau da, pertsonak berdinean tratatu behar direnik beti).

8) 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.

- a) Ez du printzipio orokortzat, zeharka eta ekintza espezifiko bidez, gizonen berdintasunaren alde duten kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea.

- b) Bi printzipio orokor ditu ardatz: tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna.
- c) Printzipio gisa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan, hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzea eta euskararen erabilera sustatzea du helburu.
- d) Autonomia-erkidegoko organoak eta erakundeak ditu aplikazio-eremu, baina ez foru- eta toki-eremukoak.

9) Nola egiaztatzen da interesdunaren borondatea eta adostasuna?:

- a) Eskuzko sinadura digitalizatuarekin.
- b) Administrazio Publikoko organoaren zigiluarekin.
- c) Identifikazio elektronikoarekin.
- d) Sinadura elektronikoarekin.

10) Elkarreragingarritasun semantikoa elkarreragingarritasunaren dimentsio bat da. Zeri egiten dio erreferentzia?:

- a) Trukatutako informazioa interpretatu eta berrerabili ahal izateari.
- b) Trukatutako informazioa gorde eta berrerabili ahal izateari.
- c) Trukatutako informazioa beste euskarri elektroniko batzuetan gorde ahal izateari.
- d) Trukatutako informazioa administrazio publiko guztiek trukatu ahal izateari.

11) Hauetako zein EZ da Segurtasun Eskema Nazionalaren helburu bat?:

- a) Segurtasunaren etengabeko kudeaketa sustatzea.
- b) Jardunbide egokien eredu izatea.
- c) Lankidetzaz erraztuko duen segurtasunaren tratamendu homogeneoa sustatzea.
- d) Hizkuntza komuna ematea.

12) Nola identifikatuko dira erabiltzaileentzat Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoak?:

- a) Harremanetarako datuak hasierako orrian ikusteko moduan jarrita.
- b) Helbide elektroniko gisa Administrazio Publikoaren izena erabiliz, .eus domeinuarekin.
- c) Bere webgunearen autentifikazio-ziurtagiri aitortu edo kualifikatuak erabiliz.
- d) Bere webgunearen ziurtagiri aitortuak erabiliz.

13) Gastu publikoa exekutatzeko, honako printzipio hauek bete behar dira:

- a) Aurrekontu-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efikazia.
- b) Finantza-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efikazia.
- c) Finantza-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efizientzia.
- d) Aurrekontu-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efizientzia.

14) Gastua xedatzea:

- a) Egintza bat da, zeinaren bidez formalizatzen baita, egin beharreko lege-izapideak

egin eta gero, obra zehatzak egingo direla, edo ondasun eta zerbitzuak edo dirulaguntzak eman edo hornituko direla. Horretarako, dagokion ordainketa-kreditua gorde behar da, bat etorriko dena zehatz-mehatz adostutako zenbatekoarekin eta baldintzekin.

- b) Hala esaten zaio arduradunak, onartutako obligazio batengatik, Euskal Autonomia Erkideoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordainketa-agindua emateko eragiketari.
- c) Eragiketa bat da, kontuetan erregistratzeko zer kreditu edo zenbateko exiji daitekeen, egokiro egiaztatu delako «xedapenaren» xede den prestazioa, edo bete egin direlako xede horretarako adostu edo ezarritako baldintzak.
- d) Egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita gastu hori ordainketa-kreditu jakin bati kargatzea, zenbateko batez —gehienekoa, zehatza edo gutxi gorabeherakoa—. Horretarako, kreditu osoa gordeko da, edo haren zati eskuragarri bat.

15) Gastu-aurrekontua exekutatzean segidako administrazio kontrolaren printzipioa bete beharko da. Horrek zer esan nahi du?:

- a) Prozedura osatzen duen egintza oro gauzatu aurretik, ziurtatu egin behar dela egoki bete direla aurreko eragiketak.
- b) Dokumentu bidez egiaztatu behar direla prozedura osatzen duten eragiketa guztiak, justifikatu beharreko igorpenak barne.
- c) Idatziz jasota egon behar dela arduradunek eragiketa guztiak bete dituztela.
- d) Batzar Orokorrak berak onartu behar dituela aurrekontu orokorrak.

16) Egitekoa den gastua zergaren baten eraginpean badago, zein da baieztapen zuzena?:

- a) Zergak gastua eragiten du beti.
- b) BEZ kengarria bada edo PFEZren atxikipenak badira, aurrekontutik kanpoko eragiketak dira.
- c) Zergak ez du inoiz gasturik eragiten.
- d) Ordainketak sorrarazten dituzten eragiketak dira, baina, gastuak ez direnez, ez zaizkio aurrekontuari egozten.

17) Behin-behineko ordainketa-aginduz jasotako funtsak zertarako erabili dituen justifikatu beharko du hartzaileak. Zenbateko epea izango du horretarako?:

- a) 15 egun natural.
- b) 15 egun baliodun.
- c) Hiru hilabete.
- d) Hilabete bat.

18) Izaera pribatuko eta izaera publikoko diru-sarrerak bereiztea:

- a) Garrantzitsua da, nahiz eta bilketa-prozedura bera den.
- b) Berdin dio, kreditu-esleipenerako baino ez da egiten bereizketa.

- c) Bereizketa hori garrantzitsua da, bilketa-prozedura desberdina baita. Izan ere, lehenbizikoetan premiamendu-prozedura erabil daiteke; bigarrenetan, berriz, ez.
- d) Bereizketa hori garrantzitsua da, bilketa-prozedura desberdina baita. Izan ere, lehenbizikoetan premiamendu-prozedura ezin da erabili; bigarrenetan, berriz, bai.

19) Noiz aitortzen dira premiamendu-errekarguak?:

- a) Sortzapenean aitortzen dira.
- b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru- bilketa egiten den unean bertan.
- d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

20) Lanpostu-zerrendek edo antzeko antolaketa-tresnek izan behar duten gutxieneko edukian EZ dago jasota honako hau:

- a) Lanpostuaren izena.
- b) Lanpostuan jardun ahal izateko eskatzen diren betekizunak.
- c) Lanpostua betetzeko sistema.
- d) Lanbide-sailkapeneko taldea.

21) Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78. artikuluan karrerako funtzionarioak eta lan-kontratuko langile finkoak hautatzeko sistemari buruz xedatutakoaren arabera:

- a) Hautaketa-sistema praktika-aldi bat edo praktikaldi bat gaindituz osatu ahal izango da. Proba horrek prestakuntza-ikastaro bat izan dezake, azken ebaluazioarekin.
- b) Hautaketa-sistema praktikaldi edo probaldi bat gainditzearekin osatu beharko da nahitaez, eta azken ebaluazioa duen prestakuntza-ikastaro bat izan ahal izango du.
- c) Hautaketa-sistema praktika-aldi bat edo probaldi bat gainditzearekin osatu ahal izango da, eta azken ebaluazioa duen prestakuntza-ikastaro bat izan beharko du.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

22) Enplegatu publikoen diziiplina-araubidearekin lotuta, zeintzuk izango dira falta astunak?:

- a) Gorte Nagusien lege baten bidez halakotzat tipifikatuta geratzen direnak bakarrik.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotakoak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua).
- c) Dagokion autonomia-erkidegoko batzar legegilearen lege batean halakotzat tipifikatuta geratzen direnak bakarrik.
- d) Lan-kontratudun langileen kasuan hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak.

23) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) jasotako enplegatu publikoen diziiplina-araubidea dela eta, zer gerta daiteke lan-kontratudun langileek falta oso astunak eginez gero?:

- a) Eginkizunen etenaldi irmoa.
- b) Zerbitzutik baztertzea.
- c) Diziplinazko kaleratzea.
- d) Izendapena errebokatzea.

24) Zertarako balio dute metadatuak dokumentu elektroniko batean?:

- a) Testuingurua ematen diote dokumentu baten edukiari, egiturari eta sinadurari, eta denboran zehar haren froga-balioari eta fidagarritasunari laguntzen diote, jardueren eta prozeduren ebidentzia elektroniko gisa.
- b) Testuingurua, edukia eta sinadura identifikatzeko, denboran zehar froga-balioa emateko, baita artxibo-sistemara transferitu denean ere.
- c) Dokumentuaren OID, jatorria, edukia eta froga-balioa behar bezala identifikatzeko dokumentua kudeatzen duen informazio-sisteman.
- d) Sinatu ondoren dokumentu elektroniko bihurtzen den OIDA deskribatzeko eta testuinguruan jartzeko, eta froga-balioa emateko, batez ere dokumentua kudeatzen duen informazio-sistematik kanpoko prozeduretan txertatzen bada.

25) Euskal Autonomia Erkidegoko udal batek egindako kopia elektroniko autentikoak non izango dira baliozkoak?:

- a) Jatorrizkoa aurkeztu den udalean.
- b) Administrazio guztietan.
- c) Udalean eta Eusko Jaurlaritzan.
- d) Udalean, foru-aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan.

26) 39/2015 Legeak zertarako EZ du eskatzen elkarreragingarritasun elektronikoaren betekizuna?:

- a) Erregistro elektronikorako.
- b) Kopia autentikoen identitatea eta edukia bermatzeko.
- c) Espediente elektronikoa igortzeko.
- d) Identitatearen akreditazioa bermatzeko.

27) Zer bermatzen du EKSk administrazio publiko batek emandako dokumentu batean?:

- a) Dokumentuaren osotasuna.
- b) Dokumentuaren eskuragarritasuna.
- c) Dokumentuaren segurtasuna.
- d) Dokumentuaren konfidentziasuna.

28) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 39.

artikuluaren arabera, zer da interneteko ataria?:

- a) Herritarrak informazioa eskatzeko eta edozein organo publikorengandik hura jasotzeko leku birtuala.
- b) Administrazio publikoak bere zerbitzu eta prestazio guztiak eskaintzen dituen on line gunea.
- c) Herritarrentzat interesgarria den informazioa argitaratzeko administrazio publiko, erakunde publiko edo zuzenbide publikoko entitate batek erabiltzen duen kokapen fisiko eta birtuala.
- d) Irispide-puntu elektronikoa bat da, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasuneko, interneten bidez irispidea ematen duena argitaratutako informaziora eta, hala denean, dagokion egoitza elektronikora.

29) Administrazioaren jardunaren aurkako kexa edo erreklamazio baten aurrean:

- a) Garrantzitsua da zergatia zein den jakitea.
- b) Funtzionarioak edo enplegatu publikoak jarrera pasiboa izan behar du, ez du interesik agertu behar.
- c) Ez da hain garrantzitsua diagnostiko on bat egitea jarrera pasibo bati eustea baino.
- d) Funtzionarioak edo enplegatu publikoak ez du ikertu behar kexaren arrazoia eta larritasuna.

30) Zein da dokumentuak sailkatzeko lengoia hedatuenetako bat?:

- a) ISBD.
- b) MARC21.
- c) Tesauro.
- d) SHU.

31) Liburutegi eta dokumentazio-zentro gehienek LKSIak erabiltzen dituzte tresna informatiko gisa. Izan ere, honako hau ahalbidetzen dute:

- a) Liburutegietako funtzio desberdinen kudeaketa automatizatzea.
- b) Eduki digitalen irakurketa.
- c) Datuak automatizatzea eta berreskuratu edo trukatu ahal izatea.
- d) Identifikazio bibliografikoaren normalizazioa.

32) Legegintza-eskuordetzaren ezaugarri hauetatik, zein da OKERRA?:

- a) Legegintza-eskuordetza emango zaio Gobernuari hura baliatzeko epea jarrita.
- b) Konstituzioak debekatu egiten du legegintza-eskuordetza lege organikoari erreserbatutako gaiei buruzkoa izatea.
- c) Eskuordetzak espresua behar du izan, nahiz eta eskuordetza inplizituak egitea onar daitekeen, baina ez denbora mugagaberako.
- d) Eskuordetza behin bakarrik baliatzeko ematen da; behin Gobernuak baliatuta, agortu egiten da.

33) Legezkoatasun-printzipioaren arabera, administrazioaren jarduna:

- a) Konstituzioari eta legeei men eginez egin beharko da, ez erregelamendu-mailako arauari men eginez.
- b) Kasu zehatz baterako salbuetsi dezake erregelamendu batean oro har ezarritakoa.
- c) Ordenamendu juridiko osoaren mende dago.
- d) Herritarrek bakarrik bete behar dituzte ordenamendu juridikoaren arau guztiak.

34) Organo hauetatik, zeinek osatzen du nahitaez udal guztien egitura edo antolaketa?:

- a) Alkateordeak.
- b) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- c) Informazio Batzordeak.
- d) Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzordeak.

35) Administrazio Publikoaren hierarkizazioari dagokionez:

- a) Eskumenak bertikalean banatzeko aukera ematen du.
- b) Eskumenak horizontalean banatzeko aukera ematen du.
- c) Administrazio-organoen botereak eta zereginak antolatzeko aukera ematen du, eskumen- irizpidearen arabera.
- d) Ez da administrazio-organoak antolatzeko irizpide bat.

36) Hauetatik, zeinek amaitzen du administrazio-bidea?:

- a) Gora jotzeko errekurtoa jartzeak.
- b) Hierarkian goragoko organoa duen administrazio-organo baten ebazpenak.
- c) Ondare-erantzukizuneko prozeduraren ebazpenak.
- d) Berraztertze-errekurtoa jartzeak.

37) Administrazio-prozedura erkidea Estatuaren eskumen gisa arautzeak zer esan nahi du?:

- a) Estatuako legeak administrazio-prozedura zehatz-mehatz arautzen duela.
- b) Estatuako legeak administrazio-prozedura guztietan bete beharreko gutxieneko prozedurarau eta -berme batzuk jasotzen dituela.
- c) Estatuak bakarrik eman ditzakeela administrazio-prozedurari buruzko legeak.
- d) Gai batzuetan autonomia-erkidegoei legegintza-eskumenak aitortzen bazaizkie ere, autonomia-erkidegoek ezin izango dutela prozedurazko araurik eman.

38) Administrazio-prozedura batean interesdun denak eskubidea du:

- a) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzeko.
- b) Eskera baietsizat jotzeko, administrazioak ez badu ebazpena epearen barruan ebazten eta jakinarazten.

- c) Administrazio-prozeduraren izapidetze-egoera zein den jakiteko, baina prozedura hasteko fasean bakarrik.
- d) Jatorrizko dokumentuak aurkezteari uko egiteko beti.

39) Errekusazioari dagokionez:

- a) Arazo intzidental bezala, ez du administrazio-prozeduraren izapidetzea eteten.
- b) Administrazio-prozedura izapidetzen ari den organoaren titularrak duen eskubidea da.
- c) Interesdunaren eskubidea da.
- d) Behin planteatuta, errekusatutako subjektuak berak ebatziko du.

40) Administrazio-errekurtsoak izapidetzean:

- a) Ez dago inola ere entzunaldi-izapiderik.
- b) APELen, oro har, entzunaldi-izapidea aurreikusten da.
- c) Alegazioak aurkez daitezke, salbuespen gisa.
- d) APELek espresuki debekatzen du entzunaldi-izapidea.

B ZATIA

Leioako Udaleko Lanpostuen Zerrendaren arabera, gaur egun 20 agente-plaza daude Udaltzaingo Sailean, eta ez dago administrari langile-plazarik atxikita. Udaleko komisariordeak 3 administrari langile-plaza eskatu ditu txosten bidez, sail horrek bere gain hartuko baitu TAOren kudeaketa, eta, beraz, lanpostuak lehenbailehen betetzeko eskatu du. Era berean, adierazi du plazek 2. hizkuntza-eskakizuna izan beharko dutela, derrigorrezko-datarik gabekoak.

41) Udaleko Giza Baliabideen arloan plazak sortzeko eskaera jaso ondoren, dagozkion izapideak hasi dira, lehenik eta behin:

- 3 lanpostu horiek betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzea.
- Dagokion lan-eskaintza publikoa deitzea.
- Lanpostuak Langileen Erregistroan inskribatzea.
- Lanpostuen zerrenda aldatzea, sailean lanpostuak sortzeko edo esleitzeko.

42) Eskatutako plazak honela sailkatuko dira:

- Eskala Berezia, Zerbitzu Berezien Azpieskala, C taldea, C2 azpitaldea, eta, beraz, derrigorrean beharko dute batxilergoko titulazioa edo titulazio teknikoa.
- Eskala Berezia, Poliziako Zerbitzu Berezien Azpieskala, C taldea, C1 azpitaldea, eta, beraz, derrigorrean beharko dute eskola-ziurtagiriaren titulazioa.
- Kudeaketako Administrazio Orokorreko Eskala, C taldea, C1 azpitaldea, eta, beraz, derrigorrean beharko dute batxilergoko titulazioa edo titulazio teknikoa.
- Administrazioarako Administrazio Orokorreko Eskala, C taldea, C1 azpitaldea eta, beraz, derrigorrean beharko dute batxilergoko titulazioa edo titulazio teknikoa.

43) Komisariordeak duen premia eta presa kontuan hartuta, nola bete beharko litzateke plaza sortu ondoren, funtzionario-plazak direla kontuan hartuta?

- Lanpostu hutsa betetzeko kontratuen bidez, hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean.
- Lanpostu hutsak betetzeko bitarteko izendapenen bidez.
- Zeregin-pilaketagatiko kontratuen bidez
- Udalaren lan-poltsan dauden pertsonak karrerako funtzionario izendatuz.

44) Hiru lanpostu horiek betetzeko hautaketa-prozesuan, honela baloratu ahal izango da hizkuntza-eskakizuna:

- Euskararen ezagutzari emandako puntuazioa hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 20 izango da, gehienez ere.
- Nolanahi ere, lanpostuari dagokion maila espezifikoaren egiaztapenari ematen zaion balorazioa ezin izango da, inondik inora, hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 10 baino txikiagoa izan.

- c) Euskararen ezagutzari emandako puntuazioa hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 10 izango da, gehienez ere.
- d) Nolanahi ere, lanpostuari dagokion maila espezifikoa egiaztatzeari ematen zaion balorazioa ezin izango da, inondik inora, hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 15 baino txikiagoa izan.

45) Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua araber, hautaketa-organoetako kide izan daitezke:

- a) Behin-behineko langileak.
- b) Sindikatuen izenean edo ordezkaritzan diharduten langileak.
- c) Bitarteko funtzionarioak.
- d) Lan-kontratuko langile finkoak.

46) Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen VIII. tituluak honako hau aurreikusten du izendapen askeari dagokionez:

- a) Deialdi publiko bidez egiten den izendapen askean, organo eskudunak diskrezionalki balioesten ditu hautagaien egokitasuna eta gaitasunak, lanpostuan jarduteko eskatzen diren baldintzei dagokienez.
- b) Izendapen askeko sistemaren bidez bete ahal izango dira soilik lanpostuen zerrendetan modu horretan hornitzeko gordetako lanpostuak, erantzukizun berezia dutelako eta zuzendari publiko profesionalentzat gordeta ez daudenak, bai eta horiek betetzeko konfiantza pertsonal berezia behar duten lanpostuak ere.
- c) Izendapen askeko lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak lanpostutik kendu ahal izango dira, nahierara.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

47) José Ariztimuño jauna Leioako Udaleko funtzionarioa den Karmele Jaio andrearekin dago ezkontuta. Karmelek José interesduna den prozedura batean esku hartu du. Hori ikusita, alkateak idazkariari galdetu dio ea zer ondorio juridiko izan ditzakeen prozeduran Karmele abstenitu ez izanak. Honako hau ebatzi du:

- a) Erantzukizuna izango du Karmele Jaio Leioako Udaleko funtzionarioak esku hartu izanak, eta ekarriko du, nahitaez, eta nolanahi ere, esku hartu duen egintzen baliogabetasuna.
- b) Erantzukizuna izango du Karmele Jaio Leioako Udaleko funtzionarioak esku hartu izanak.
- c) Erantzukizuna izango du Karmele Jaio Leioako Udaleko funtzionarioak esku hartu izanak, baina ez du ekarriko, nahitaez, eta nolanahi ere, esku hartu duen egintzen baliogabetasuna.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

48) 2025eko urtarrilaren 14an, Benito Lertxundi jaunari administrazio-bideko egintza irmo bat jakinarazi zaio balio osoz. Benito jaunak Udaleko funtzionario bati

galdetu dio ea jar daitekeen egoera jakin batzuetan egintza horren aurka administrazio-errekurtsorik.

- a) Gora jotzeko errekurtsua.
- b) Aukerako berraztertze-errekurtsua.
- c) Gora jotzeko errekurtsua edo aukerako berraztertze-errekurtsua.
- d) Berrikusteko errekurtsu berezia.

49) Benito Lertxundi jaunak aukerako berraztertze-errekurtsua jarri du, eta zuregana jo du 39/2015 Legeak errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko ezartzen duen gehieneko epea zein den jakiteko.

- a) Hilabete.
- b) Bi hilabete.
- c) Hiru hilabete.
- d) Sei hilabete.

50) Hautaketa-prozesu bateko epaimahaiko idazkari izendatu zaituzte (kide anitzeko organoa). Kideetako batek zuregana jo du galdetzeko ea epaimahai horretako saioak urrutitik egin daitezkeen ikus-entzunezko baliabideen bidez. Hau ebatzi duzu:

- a) Epaimahaia aurrez aurre eratu behar da beti.
- b) Epaimahaia eratu eta erabakiak hartu aurrez aurre egin behar da beti.
- c) Epaimahaiaren eratu, erabakiak hartu eta aktak bidali aurrez aurre egin behar da.
- d) Epaimahaia eratu, erabakiak hartu eta aktak bidali aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izango da, salbu eta barne-erregelamenduak berariaz eta salbuespenez kontrakoa jasotzen badu.

51) Karrerako funtzionarioa zarenez, administrazio-prozedura baten instrukziogilea zara, eta EZ dituzu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak. Zuk, prozedura horren instrukzio-egileak, frogaldia irekitzea erabakiko duzu, epe jakin baterako:

- a) Gehienez hogeit hamar egun eta gutxienez hamar.
- b) Gehienez hogeita hamar egun eta gutxienez hamar.
- c) Gehienez hamabost egun eta gutxienez hamar.
- d) Gehienez hogeita hamar egun eta gutxienez hogeit.

52) Leioako Udaleko administrazio-unitateko funtzionarioa zara eta erregistro orokorreko eginkizunak betetzen dituzu. Hierarkian gorago dagoen batek zirkular bat bidali dizu, pertsona fisiko edo juridikoek toki-erakundearen aurrean jarduteko duten gaitasunari buruz. Jarraian, ohartu zara zirkularren kasuetako bat EZ DELA ZUZENA. Adierazi zein den.

- a) Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute: Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.

- b) Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute: Adingabeek beren eskubideak eta interesak baliatu eta defendatzeko, guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsonaren laguntzarik gabe, betiere.
- c) Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute: Adingabe ezgaituek, baldin eta ezgaitasunaren hedadurak eragina badu kasuan kasuko eskubide edo interesen egikaritzan eta defentsan.
- d) Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute: Ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta erakundeek eta ondare independente edo autonomoek, legeak espresuki hala adierazten duenean.

Kasua:

Jokin gure bulegora etorri da, zehazki, Leioako Udaleko Erregistro Gaietan Laguntzeko Bulegora. Dagoeneko amaituta dagoen prozedura bati buruzko dokumentazioa eskuratzeko eskaera bat egin du; prozedura horretan ez da interesduna, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidean oinarritzen du bere eskaera. Jokinek ikusmen-desgaitasuna du, eta Udalaren egoitza elektronikoa egiten saiatu bada ere, ezin izan du izapide hori egin.

53) Zein da Jendearentzako Arreta Bulegoko langileek egin behar duten lehen urratsa, Jokinek, azkenean, eskabidea aurrez aurre aurkeztea erabakitzen badu?

- a) Herritarra Udaleko sail juridikora bidaltzea.
- b) Herritarra Udaleko informatika-sailera bidaltzea.
- c) Herritarraren nortasuna egiaztatzea eta eskaera sisteman erregistratzea.
- d) Herritarrari jakinaraziko diogu prozeduran interesduna ez denez, ezin dela bere eskaera egin.

54) Herritarra bulegoan dagoela, izapidea elektronikoki egiten tematu bada:

- a) Funtzionarioak lagunduko dio zeregin horretan.
- b) Izapidea aurrez aurre egiteko behar duen laguntza guztia eman beharko diogu.
- c) Jakinaraziko diogu ezin duela eskubide hori baliatu ez delako interesduna.
- d) Lagundu egingo diogu baldin eta egoitza elektronikora sartzeko ziurtagiri digital bat badu.

55) Non dago jasota Jokinek eskatzen duen informazio publikorako eskubidea?

- a) Abenduaren 9ko 19/2013 Legean dago jasota.
- b) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ere geratu zen jasota.
- c) Konstituzioan ere jaso zen.

- d) Guztiak dira zuzenak.

56) Izapide hori egiteko administrazio publiko batek emandako dokumentu jakin bat aurkeztu behar bada eta une horretan ez badarama.

- a) Eskaera jasoko da, eta ohartaraziko zaio 10 eguneko epea duela akatsa zuzentzeko, edo beste egun batean ekartzea duela.
- b) Bertan eskuratu ahal izango da, baldin eta Leioako Udalak emandako dokumentua bada.
- c) Udalak bertan eskuratu ahal izango du, Leioako Udalak emandako dokumentua ez bada.
- d) b eta c zuzenak dira.

57) Eta dokumentu pribatua bada eta ez duela aurkeztuko esango baligu, bere garaian beste administrazio batean aurkeztu zuelako beste erreklamazio bat zela-eta?

- a) Hori egiteko eskubidea du.
- b) Izapidetzea amaitutzat joko da, eta ahalik eta adeitsuen jakinaraziko zaio ekarri behar duela.
- c) Eskaera jasoko da eta 10 eguneko epea emango zaio aurkeztu ahal izateko.
- d) Eskaera jasoko da eta 15 eguneko epea emango zaio aurkeztu ahal izateko.

58) Kexa-inprimakia betetzean, ikusi dugu ez dagoela formulariorik Brailen. Nola jokatu behar dugu?

- a) Administrazioen betebeharra da formatu alternatiboak dituzten inprimakiak edukitzea, tipografia handiak edo zabalduak dituztenak, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen egokituak; beraz, eskaera gure nagusiei helarazi beharko diegu.
- b) Legeak aurreikusten du ezinezkoa dela desgaitasun mota bakoitzerako inprimaki bat edukitzea, baina eskatzailearen zuzeneko senideren batek dokumentu hori bete eta sinatu ahal izatea planteatzen du.
- c) Horrelako materialik ez badago, bulegoko langileek lagundu ahal izango diote betetzen.
- d) Guztiak dira okerrak.

59) Pertsona bat Leioako Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ) joan da, aldeztu aurretik laguntza bat izapidetzean entregatutako paperezko dokumentazioa eskatzera. Zenbat denbora gordetzen ditu Leioako Udalak paperean aurkeztutako espediente baten jatorrizko dokumentuak, eskatzaileak jaso ahal izan ditzan?

- a) 3 hilabete.
- b) urtebete.
- c) 6 hilabete.
- d) 5 urte

Leioako Udala urteko aurrekontua kudeatzen ari da. Ekitaldi fiskalean zehar, Udalak gastuen eta diru-sarreraren kudeaketarekin eta zerbitzuen eta obren kontratazioari lotutako hainbat egoerari egin behar die aurre:

60) Beharrezkotzat jotzen dute liburutegirako ekipo informatiko berriak erostea. Zer kontzeptu dagokio gastu bat egitea erabakitzen den egintzari?

- a) Ordainketa xedatzea.
- b) Gastua baimentzea.
- c) Obligazioa onartzea.
- d) Gastuen hondarrak.

ERRRESERBAKO GALDERAK

61) Gastu-xedapenaren dokumentu-euskarriari dagokionez, aurretiatzko fiskalizazioaren mende dauden kasuetan, zer erantsi behar zaio kontabilitate-dokumentuari?:

- a) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatu gabe.
- b) Xedapen-egintzaren ondorengo administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatu gabe.
- c) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatuta.
- d) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, baina konpromiso-dokumentua sartu gabe.

62) Noiz aitortzen dira jasotako transferentziak eta dirulaguntzak?:

- a) Sortzapenean aitortzen dira.
- b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru- bilketa egiten den unean bertan.
- d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

63) Erregistroen interkonexio-sistema (EIS) oinarritzko azpiegitura da. Zertarako balio du?:

- a) Udaletako eta foru-aldundietako erregistro-bulegoak bakarrik elkarrekin konektatzeko.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro-bulegoak bakarrik elkarrekin konektatzeko.
- c) Administrazio publikoen erregistro-bulegoak elkarrekin konektatzeko.
- d) Administrazio publikoetako erregistroak Zuzenean zerbitzuaren bidez elkarrekin konektatzeko.

64) Nazioarteko Deskribapen Bibliografiko Normalizatuak (ISBD) nazioarteko arau batzuk biltzen ditu jaso beharreko datuen formari eta edukiari buruz. Non jaso behar dira, hain zu- zen?:

- a) Dokumentu baten deskribapen bibliografikoan.
- b) Dokumentu bat indexatzean edo irispide-puntuak zehaztean.
- c) Dokumentu baten signatura topografikoan.
- d) Dokumentu bat erregistratzean.

65) Administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dagoenak aurrez aurre aurkezten badu eskaera:

- a) Eskaera onartu egingo da, eta administrazioak berak emango dio sarrera eskaerari erregistro elektronikoan.
- b) Administrazioak baztertu egingo du eskaera.
- c) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, baina eskaera aurrez aurre aurkeztu zen eguna joko da aurkezpen-datatzat.
- d) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, eta zuzenketa egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

Leioako Udala urteko aurrekontua kudeatzen ari da. Ekitaldi fiskalean zehar, Udalak gastuen eta diru-sarreraren kudeaketarekin eta zerbitzuen eta obren kontratazioari lotutako hainbat egoerari egin behar die aurre:

66) Aurten kiroldegiaren birmoldaketa integralari ekitea erabaki dute, eta hainbat urtez luzatuko da. Zer dira konpromiso-kredituak gastuen aurrekontuaren testuinguruan?

- a) Dagoeneko egindako ordainketak.
- b) Etorkizunean egingo diren gastuetarako zenbatekoak.
- c) Gauzatu gabeko gastuak.
- d) Funts aurreratuak.

67) Zergadunaren egutegiaren arabera, dagozkion jakinarazpenak egiten dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) ordaintzeko. Diru-sarreraren aurrekontuan, zer dira aitortutako eskubideak?

- a) Administrazioak zenbatekoak kobratzeko eskubidea.

- b) Dagoeneko kobratu diren diru-sarrerak.
- c) Bidegabeko sarreren itzulketak.
- d) Sarreren kontabilitate-agiriak.

68) Eta bizilagunetako bati zabor-tasa ordaintzeko eskatu zaio, ez baitu ezarritako epean ordaindu. Zein da diru-sarreren aurrekontua gauzatzean aplikatzen den premiamendu-errekargu arrunta?

- a) % 5.
- b) % 10.
- c) % 20.
- d) % 15.

69) Bestalde, kontratu txikia eskatzen duen mantentze-zerbitzu bat kontratatu behar da. Zer kontabilitate-dokumentu kontabilizatu behar da kontratu txiki bat formalizatzean?

- a) Gastua baimentzeko A dokumentua.
- b) Aitortutako eskubidea erregistratzeko R dokumentua.
- c) Diruzaintza Nagusiaren aurkako ordainketa-aginduaren O dokumentua.
- d) AD dokumentua, gastua baimentzeko eta prestazioa aldi berean erabiltzeko.

70) Hauetako zein ez da diru-sarrera mota bat?

- a) Zerbitzuengatiko tasak.
- b) Zerga-sarrerak.
- c) Justifikatu beharreko ordainketak.
- d) Jarduketa teknikoengatiko tasak.